

LILE: TRANSPARENCIA. PROTECCIÓN DE DATOS. DERECHO ACCESO A LA INFORMACION

KODEA

INFORMAZIO OROKORRA

| | | | |
|--------------------------------|---|----------------------------|---|
| DATAK | Maiatzak 8 eta 9 | TOKIA/ IKASGELA | Bilbo. IVAPeko egoitza (Errekalde zumarkalea, 18) |
| IRAUPENA | 10 ordu | ORDUTEGIA | 09:00-14:00 |
| MATRIKULA EPEA | Apirilak 7 | ONIRITZI EPEA | -- |
| IKASLE KOPURUA | 20 pertsona | HARTZAILEAK | Udaletako teknikariak |
| HAUTATZE IRIZPIDEAK | -- | LEHENTASUNA | Altua |
| IRAKASLEA | Martin M ^a Razquin Lizarraga. Administrazio Zuzenbideko Katedraduna. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. | MATERIALA | Ikastaroari dagokion materiala eskuragarri egongo da |
| DISEINUA | EUDEL-ALDUNDIAK-IVAP | AZPIEGITURA | Ordenagailu eramangarria, proiektagailua, papelografoa |

ZER LORTU NAHI DA

| | |
|------------------------------|--|
| HELBURU OROKORRAK | Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen araudia ezagutzea gardentasun aktiboaren eta eskuratzeko eskubidearen arloan, baita abenduaren 9ko 19/2013 Legean jasota dagoen estatuko araudi klasikoaren arloan ere. |
| IKASLEEN HELBURUAK | Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak gardentasunaren eta eskuratzeko eskubidearen arloetan ezartzen duen araubide juridikoa ezagutuko dute ikasleek. Ikuspegi praktikoa garrantzitsua izango da, eta horri esker, ezagutza horiek praktikan jartzearen arazoei aurre egin ahalko dute, bereziki datu pertsonalen babesa tartean dagoenean. |
| GAITASUNAK | Prestakuntza ekintza amaitzean ikaslea gai izango da: <ul style="list-style-type: none"> Euskadiko Toki erakundeei buruzko Legearen ondorioz toki erakundeek gardentasunaren arloan dituzten betebeharrak ezagutzeko. Pertsona fisiko eta juridikoek eskuratzeko egiten dituzten eskariak artatzeko, halakoak tramitatu behar badituzte. Publizitate aktiboaren eta pasiboaren mugei buruz irizpide sendoa edukitzeko, bereziki datu pertsonalen babesari dagokionez. Gardentasunari buruz jarrera aktiboa hartzeko. |

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

| | |
|--------------------|---|
| METODOLOGIA | Eskoletan teoria eta praktika uztartuko dira. Horretarako, azalpen teorikoei jarraitzeko nahiz jarduera praktikoetan parte hartzeko beharrezko materiala banatuko da. |
| PROGRAMA | <ol style="list-style-type: none"> Gardentasunari buruzko Estatuko Legea: esparru orokorra. Gardentasunari buruzko araudi orokorra eta araudi espezifikoak. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea: esparru orokorra eta gardentasunari buruzko xedapenak. Gardentasunaren bi alderdiak: gardentasun aktiboa eta gardentasun pasiboa. |

| | |
|------------------------|-------------------------------------|
| PRESTAKUNTZA ARLOA: | ADMINISTRAZIOKO OINARRIZKO GAIAK |
| MODALITATEA: | AURREZ AURRE |
| HIZKUNTZA: | GAZTELANIA |

LILE: TRANSPARENCIA. PROTECCIÓN DE DATOS. DERECHO ACCESO A LA INFORMACION

4. Gardentasun aktiboa: subjektu behartuak.
5. Gardentasun aktiboa: edukia.
6. Gardentasun aktiboa: publizitatearen prozedura eta egituraketa: Gardentasun ataria.
7. Gardentasunaren mugak: bereziki, datu pertsonalen babesa.
8. Eskurapen eskubidea: subjektu aktiboak eta subjektu behartuak.
9. Eskuratzeko prozedura.
10. Erreklamazioak eta errekurtsioak gardentasun aktiboaren eta pasiboaren arloan.
11. Gardentasun betebeharrak urratzearen ondoriozko erantzukizunak.

EBALUAKETA

- **Ebaluaketaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketak jaso beharko du:** 20 galderako test bat ikastaroan emandako gaiei buruz. Galdera guztietatik 10 ondo erantzun beharko dira. Horrez gain baloratuko da ikastaroan modu nabarmenean parte hartzea epaiak eta kasu praktikoak aztertzen eta txantilo eta ereduak egiten.

Atalen puntuazioa honakoa izango da:

- Testa: 8 puntu
- Parte-hartzea: 2 puntu

Azken kalifikazioa GAI/ EZ GAI bezala adieraziko da.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazioa inkesta

Bete beharreko baldintzak:

- %80ko bertaratzea
- Aprobetxamendu proba gainditzea

ZIURTAGIRIA DIGITALA: APROBETXAMENDUA

Ikastaroa itxi bezain pronto **ziurtagiri digitala** eskuragarri izango duzu. Ziurtagiria eskuratu ahal izateko Prestakuntza Zerbitzuko Argibideak atalera jo: Administrazio Orokorra edo Toki Administrazioa arloetan.

PREZIOA

114€ (AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena).